



Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Izarretako gerrarako prestatzen

Negu hotza Lur planetako ipar hemisferiora heltzen ari zaigun heinean, are eta ozenagoak dira guda danbor hotzak. Albis-
tegiak propagandaz beteta datozki-
gu eta batek ezin du jada pelikula
argi ikusi. “DART” espazio ontziak
Lurra mehatxatzen zuen asteroide
baten aurka jo eta NASAk gizateria
(berriz) salbatu du, pelikula hartan
bezala. Egiari zor, nire belarrietan
«Darth» entzun dut eta atoan “Star
Wars” film sortako musika gogoan-
garria etorri zait burura, belarri ar-
tera, inperioaren martxa danbeka.
Izan ere, inperioa kontraeraso bete-
an da eskuetatik alde egiten ari
zaion energiaren, baliabideen eta es-
pazioaren kontrolaren bila, eta hala-
koetan, normalena izaten da berta-
ko herritarrak propagandaz
bonbardatzea: onenak gara, bikaine-
nak, sistemarik libreenean bizi gara,
deabruak infernu gorrikoak dira, eta
ez kexatu, bada-eta okerrago bizi de-
nik!

Matraka horren erakusle ona da
kosmosaren ezagutza. Armstron es-
tatubatuarrak Ilargia zapaldu zuela
“zuzenean” ikusi genuen bezala, NA-
Saren ekintza askotarikoekin estali
izan dira beste herrialdeen aurrera-
penak, eta azken urteak horren era-
kusle izan dira. Azken hamarkadan
Txina izan da ziur aski protagonista
nagusi meatzaritza estralurtarrean,
baina azken boladan ez da inondik
ageri. Dena hartu dute James Web
teleskopioak (argazkiak ikusgarriak
diren ezin ukatu) eta Artemis
proiektuak, zeinak modu agerikoan
emakume eta “pertsonek ez-zuri” ba-
na jarri nahi baititu Ilargian (estatu-
batuarrak baitira emakume eta per-
tsonek arrazializatuen eskubideen

erreferente nagusiak Lur planetan).
Artemisek, baina, badu beste helbu-
ru bat: herrialdeen arteko akordioa
erdieste Ilargiaren gaineko ezagu-
tza partekatua izan dadin (edo ho-
beto esan, beste herrialdeen aurki-
kuntzak bere egiteko). Errusiak eta
Txinak ez dute akordioa sinatu, Na-
zio Batuetan kokatuz akordioetara-
ko markoa, eta nabarmen aurrera-
tzen ari dira gure satelitean
mineralak eta ura aurkitzen. Ilargia-
ren kontrola dago jokoan antza, bai-
na hori beste pelikula bat da...

**Bitartean, kosmosaren ezagutza-
rekin loturiko berri garrantzitsu bi
izan ditugu hil honetan.** Batetik,
misio bakarrean espazioan denbora
gehien eman duen gizakia hil berri
dela: Valery Poliakov kosmonauta
errusiarra. Eta bestea, gure inguru-
ko izarren sistemetan planeta urdu-

nak oso ugariak direla frogatu dela.
Planeta bizigarrien bila ari gara su-
tsuki, oraino gure planetatik alde
egiteko teknologia oso urrun egon
arren. Are gehiago, ikastetxeetan
dagoeneko Eguzki Sistema ez da Na-
tura arloan jorratzen, Gizarten bai-
zik. Badaude herriak, herrialdeak,
kontinenteak, planetak, sistemak
eta galaxiak.

**Errealitate naturala politiko bilaka-
tzeko norabidean prestatzen ari ga-
rela dirudi, izarren arteko gizateria-
rantz eramaten iruditegia, baina
oraindik errazagoa zaigu planeta
hau akabatzea beste batera bidaia-
tzea baino.** Ea asteburu honetako
Ekotopakete bide ematen duten Lur
planeta bera bizigarri egiteko, inpe-
rioari amaiera emateko, edo bederen,
heldu den negua hain hotza ez izate-
ko! Indarra zuekin izan bedi! •



Valery Poliakov kosmonauta errusiarra. GAU8